



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Joan den urrian egindako Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeetako Agintarien Kongresuan (CPLRE) ondorioztatu zen emakumeek behar baino ordezkari gutxiago dituztela udaletan erabaki politikoak hartzeko, eta oztopo desberdinei aurre egin behar dietela tokiko politikan berdintasunezko sarbidea eta partaidetza izateko.

EAEko 2015eko udal-hauteskundeetan izandako emaitzak generoaren ikuspegitik hartzen baditugu kontuan, baieztatu dezakegu 3/2007 Lege Organikoaren eragina islatu dela gure errealitate politikoan; izan ere, gaur egun %41,3 da emakumezko hautetsien portzentaia, hau da, aurreko legegintzaldian baino %2,5 gehiago.

Haatik, jaso ditugun datuei erreparatuz gero, badira oinarrizko desberdintasun batzuk. Esaterako, biztanleria handiena duten hamar euskal herrietatik bi baino ez dira emakumezko alkateak dituztenak. Are gehiago, gauza jakina da orain arte ez duela hiriburu euskaldun batek ere emakumezko alkaterik izan.

Halaber, 2015ean, eta alderdi politikoaren hauteskunde-zerrendei dagokienez, zerrenda horien %32,85tan bakarrik izan da emakumezko bat zerrendaburu. Azkenik, egonkortasunari erreparatuz, emakumeak jeneralean astiroago igotzen dira lidergo postuetara eta denbora laburragoz irauten dute postu horietan. Baina, nolakoa da gure udalerrian dagoen gizon eta emakumeen ordezkartza? Osoko Bilkurak zein Gobernu Batzordeak betetzen dute emakume eta gizonen ordezkartza orekatuari buruz agindutakoa. Informazio batzordeen kasuan, 11 batzordetatik 4tan da emakume bat buru; sei dira parekidetasun-irizpidea betetzen dituztenak.

Jakin-mina sortzen duen beste gai bat da zenbat emakumek eta gizonek egiten dituzten lanaldiak etxean eta etxetik kanpo euren funtzio publikoaz gain; emakumeek zergatik dituzten zailtasun gehiago erabakiak hartzeko postuetara iristeko; zer dela eta egiten



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

zaion zailagoa emakumeari lidergoa lortzea; eta zerk eragiten duen gizonezkoek egonkortasun luzeagoa izatea udaleko politika-arloan, eta abar.

Honegatik guztiagatik, eta otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23.artikulua betetzeko, zeinak hau esaten duen: *Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetoako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte*, Ibarra Udalak ondorengo gomendioak hartzen ditu bere gain:

- 1.- Behar diren mekanismoak martxan jartzea emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin kide anitzeko organoetan, organo aholku-emaitetan eta erabakiak hartzekoetan (epaimahaietan, auzitegieetan, balorazio batzorde teknikoetan, e.a.) eta edozein herri organoetarako izendapenetan.
- 2.- Udal-programa eta politiketan generoaren ikuspegia inplementatzen eta sustatzen jarraitzea.
- 3.- Berdintasun-arloko gaikuntza indartzea, Formazio Plan bat eginez, udal arlo guztietako teknikarientzat eta politikarientzat, udal-programa eta politiketan berdintasun-printzipioa txertatzeko teknikari eta politikari horiei formakuntza emateko helburuarekin.
- 4.- Ahal den neurrian, Berdintasun sailaren aurrekontua urtetik urtera handitzea.
- 5.- Ibarra Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean jasota dauden neurriak martxan jartzea.
- 6.- Partaidetza-prozesuak erraztea ondorengo gaiak indartzeko gune bat antolatzearen ganean eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko: berdintasun-politiken eragina eta garapena, emakumeen jabeakuntza pertsonal eta kolektiboa eta generoko rol eta estereotipoak zalantzan jartzea emakume eta gizonen jarrera eta portaera berdinezaleagoak garatzeko.